

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

113/2024 Foru Agindua, martxoaren 5koa, zeinaren bidez onesten baitira 238 ereduak, «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitoren informatiboa» izenekoak eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura, eta orobat, informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko modua eta prozedura ezartzen baitira.

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak, zeinaren bidez aldatzen baita fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua (aurrerantzean, DAC 7), helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta administrazio lankidetzarako dagoen esparrua hobetzea eta administrazio lankidetzari eremu berrietara zabaltzea, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko eta zerga administrazioei zergak hobeto eta modu eraginkorragoan biltzen laguntzeko. Alde horretatik, bertan informazio obligazio berri bat ezartzen da plataforma digitaletako operadoreei dagokienez.

Era berean, informazioa trukatzeko mekanismoak indartzen ari diren nazioarteko testuinguru horretan, kontuan izan behar da Espainiak izenpetu egin duela Ekonomia Lankidetzari eta Garapenerako Antolakundearen esparruan (ELGA, aurrerantzean) Agintari eskudunen artean adostutako Akordio Aldeaniztuna, plataforma digitalen bidez lortutako diru-sarreraren inguruko informazio truke automatikoa buruzkoa. Orobat, helburu bera duten nazioarteko beste akordio batzuk ere izenpetu ditu estatuak. Alde horretatik, Akordio Aldeaniztun horren babespean jurisdikzio sinatzaileei informazio trukea errazte aldera, onespina eman zaie ELGAren baitan ekonomia kolaboratiboaren eta noizbehinkako eta enkargupeko lan ekonomiaren esparruan saltzaile direnei buruz plataformetako operadoreek informazioa emateko ereduak arau batzuei (ereduzko arauak, aurrerantzean), zeinek antza handia baitute DAC 7 zuzentarauaren edukiarekin, eta bereziki, haren eranskinean egoki jarduteari buruz jasotzen diren arau eta prozedurekin.

Aipatutako operadoreek beharkizun hori bete ahal izan dezaten, bertan egoki jarduteko zenbait arau eta prozedura ezartzen dira plataforma digitaletako operadoreek «saltzaileei» dagokienez aplikatu dituzten, eta, horren helburua da saltzaileek datu jakin batzuk ematea operadoreei, azken horiek, beren aldetik, Zerga Administrazioarekiko duten informazio betebeharra bete dezaten.

Horrela, 13/2024 Foru Dekretuak, otsailaren 27koak, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoa egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 113/2024, de 5 de marzo, por la que se aprueba el modelo 238 «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», y las condiciones y el procedimiento para su presentación así como la forma y procedimiento para la solicitud de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información.

La Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, en adelante DAC 7, tiene como principales objetivos mejorar el marco existente para el intercambio de información y la cooperación administrativa en la Unión Europea, así como ampliar la cooperación administrativa a ámbitos nuevos, con el fin de abordar los desafíos que plantea la digitalización de la economía y ayudar a las administraciones tributarias a recaudar los impuestos de una forma mejor y más eficiente. En este sentido, se establece una nueva obligación de información respecto de los operadores de las plataformas digitales.

Asimismo, en un contexto internacional de fortalecimiento de los mecanismos de intercambio de información, hay que tener en cuenta la suscripción por parte de España del Acuerdo Multilateral entre Autoridades competentes sobre el intercambio automático de información relativa a ingresos obtenidos a través de plataformas digitales en el ámbito de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico, en adelante OCDE, así como otros acuerdos internacionales suscritos con el mismo objetivo. En este sentido, a efectos de facilitar a las jurisdicciones firmantes el intercambio de información al socaire del citado Acuerdo multilateral, se ha aprobado en el seno de la OCDE unas Normas tipo de comunicación de información por operadores de plataformas respecto de los vendedores en el ámbito de la economía colaborativa y la economía de trabajo esporádico y por encargo, en adelante Normas tipo, sustancialmente similar al contenido de la DAC 7, en particular, a las normas y procedimientos de diligencia debida de su anexo.

A efectos de que los citados operadores puedan cumplir con la mencionada obligación se establecen ciertas normas y procedimientos de diligencia debida que los operadores de plataformas digitales deberán aplicar respecto de los considerados «vendedores», a fin de que estos últimos faciliten determinados datos a los operadores para que estos, a su vez, puedan cumplir con la obligación de información respecto de la Administración tributaria.

Así, el Decreto Foral 13/2024, de 27 de febrero, por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataformas y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en

duena, gure ordenamendura ekartzeko, finkatuta utzi du zeintzuk diren egoki jarduteko arau eta prozedura horiek, eta, horrez gain, arautu ditu abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartu diren erregistro eta informazio betebeharrak berriak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean gai horien inguruan jasotzen den araudiarekin batera aplikatzekoak. Horrekin osatuta geratu dira bai 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa eta bai Akordio aldeaniztunaren edo nazioarteko beste akordio batzuen ezarpena.

Otsailaren 27ko 13/2024 Foru Dekretu horrek, DAC 7aren transposizioa egiten duenez gero, haren zenbait xedapen ukitzen eta aldatzen dituzten DAC 8ko manuak ere inplementatzen ditu. Alde horretatik, «saltzailea» nor den eta egoitza non duen zuzenean baieztatzen bada estatu kideek edo Europar Batasunak eskura jarritako identifikazio zerbitzu bat erabilita, operadoreari jarraituko zaio exijitzen egoki jarduteko prozeduren arabera eskura ditzala saltzailearen datuak. Kasu horietan, nahiz eta «informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadoreak» datuak bildu «saltzailearengandik», ez dizkio Zerga Administrazioari eman behar.

Aipatutako foru dekretua dela medio, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan informazio betebeharrak berri bat ezartzen da, zeinaren arabera «informatzera behartuta dauden plataforma operadoreak» beren plataformaren bidez garatutako jarduerari buruzko informazio jakin bat eman behar baitiote Zerga Administrazioari. Plataforma horren bitartez, «saltzaileak» beste erabiltzaile batzuekin jar daitezke harremanetan, erabiltzaile horientzat «jarduera egoki» bat garatze aldera, dela zuzenen dela zeharka. Orobat, «jarduera egoki» horrekiko «kontraprestazioa» bildu eta ordaintzeko modalitate guztiak ere hartzen ditu barne plataformak. Informazio betebeharrak horrek, ondasun higiezinaren lagapenari eta errentamenduari buruzko informazioari dagokionez, ordeztu egiten du «Erabilera turistikorako etxebizitzaren lagapenari buruzko urteko aitorpen informatiboa» (179 eredua).

Aitorpen informatibo berria aurkezteko beharrezkoa den eredua ezartze aldera, foru agindu honen bitartez onesten da bai 238 eredua, «Plataforma operadoreak informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorpen informatiboa» izenekoa, eta bai hari dagokion erregistro diseinuak, eman beharreko informazioa normalizatzeko aintzat hartzekoak.

Aitorpen informatiboaren edukia eta erregistroko diseinuak foru agindu honen eranskinean jasotzen dira.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. «Plataforma operadoreak informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorpen informatiboa» izena duen 238 eredua onestea.

Onetsita geratzen da 238 eredua, «Plataforma operadoreak informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorpen informatiboa» izenekoa, 7. artikuluan aipatzen diren zergapekoek urtero aurkeztu behar dutena. Gipuzkoako Foru Aldundira mezu informatikoak bidaliz egingo da aurkezpena, 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako prozedura, formatu eta diseinuari jarraituz, eta eranskinean aipatzen den edukiarekin.

Era berean, informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatu nahi den kasuetan, hurrengo 2. artikuluan aipatzen diren zergapekoek eskaera bat bidali beharko dute Gipuzkoako

el ámbito de la fiscalidad, establece las normas y procedimientos de diligencia debida referenciados y regula las nuevas obligaciones de registro e información que se incluyen en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que, junto a la normativa legal sobre dichas materias contenida en la Norma Foral 2/2005, 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, completan la transposición de la citada Directiva (UE) 2021/514, así como la implantación del Acuerdo multilateral u otros acuerdos internacionales citados.

El citado Decreto Foral 13/2024, de 27 de febrero, en cuanto a transposición de la DAC 7, implementa también los preceptos de la DAC 8 que afectan y dan nueva redacción a determinadas disposiciones de la DAC 7. En este sentido, en el caso de confirmación directa de la identidad y la residencia del «vendedor» a través de un servicio de identificación puesto a disposición por los Estados miembros o la Unión europea, se seguirá exigiendo al operador la obtención de dichos datos del vendedor a través de los procedimientos de diligencia debida. En estos supuestos, a pesar de que los datos son recopilados del «vendedor» por el «operador de plataforma obligado a comunicar información» no tienen que ser comunicados a la Administración tributaria.

Se introduce por medio del citado decreto foral una nueva obligación de información en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en virtud de la cual los «operadores de plataforma obligados a comunicar información» deberán declarar a la Administración tributaria determinada información relativa a la actividad desarrollada a través de la plataforma que operan. Dicha plataforma permite a los «vendedores» ponerse en contacto con otras personas o entidades usuarias para llevar a cabo una «actividad pertinente», de forma directa o indirecta, para esas personas o entidades usuarias. También incluye cualquier modalidad de recaudación y pago de una «contraprestación» con respecto a la «actividad pertinente». Esta obligación de información, en lo que respecta a información relativa a la cesión y arrendamiento de bienes inmuebles, sustituye a la «Declaración informativa anual de la cesión de uso de viviendas con fines turísticos» (modelo 179).

Con el objeto de aprobar el modelo necesario para habilitar la presentación de esta nueva declaración informativa se procede en esta orden foral a aprobar el modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», junto con los correspondientes diseños de registro a través de los cuales se normaliza la información a suministrar.

El contenido y diseño de registro de la declaración informativa figura en el anexo de esta orden foral.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

Se aprueba el modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», que habrá de presentarse con periodicidad anual por los obligados a declarar del artículo 7 siguiente, y remitirse a la Diputación Foral de Gipuzkoa mediante el envío de mensajes informáticos, de acuerdo con el procedimiento y con el formato y diseño previstos en los artículos 10 y 11, y con el contenido a que se refiere el anexo.

Asimismo, a fin de darse de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información, las y los obligados a que se refiere el artículo 2 siguiente deberán remitir un escrito de solicitud a la Diputación

Foru Aldundira, Internet bidez, foru agindu honen 4. artikuluan aipatzen den idazkien ataletik abiatuta (Zergabidea plataformatik).

2. artikulua. *Informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa edo baja emateko eskaera aurkeztera behartuak.*

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluko 3. apartatuan aipatzen direnak daude behartuta informazioa emateko obligazioa duten beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa edo baja eskatzera.

3. artikulua. *Informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa edo baja eskatzeko epea.*

1. Alta eskaera. Alta eskaera «plataforma operadore» gisa jarduten hasten denean aurkeztu beharko da.

2. Aldaketa eskaera. Eskaera hau hilabeteko epean aurkeztu beharko da, hura aurkeztu beharra dakarten egitateak gertatu direnetik aurrera.

3. Baja eskaera. Eskaera hau hilabeteko epean aurkeztu beharko da, 5. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen direnetik aurrera.

4. artikulua. *Informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa edo baja emateko eskaera aurkezteko baldintzak eta prozedura.*

Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 15 bis, 16 bis eta 17 bis artikuluetan aurreikusten dituen alta, aldaketa eta baja eskaerak nahitaez bide elektronikoz aurkeztu beharko dira, Internet bidez, Zergabidea plataformako idazkien ataletik, aurreko 3. artikuluan ezarritako epean barruan, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Era berean, nahi duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik ere sartu ahal izango da plataforma horretara.

5. artikulua. *Plataforma operadore gisa emandako alta aldatzeko edo jarduera uzteko eskaera.*

1. Alta eskaeran edo hura aldatzeko aurkeztutako beste edozeinetan jasotako datuetako bat aldatzen denean, «informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadoreak», abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 72 ter.3 artikuluan aipatzen denak, aldaketa horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari, bidezko eskaeraren bidez.

2. Era berean, plataforma operadoreak «plataforma operadore» gisa jarduteari uzten badio, edo jada ez badiu betetzen Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 72 ter.3 artikuluan ezarritako baldintzak, bidezko eskaera aurkeztu beharko du, Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri emateko, betiere informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan baja emanda gera dadin.

Foral de Gipuzkoa a través de Internet desde la sección de escritos de la plataforma Zergabidea a la que se hará mención en el artículo 4 de esta orden foral.

Artículo 2. *Obligados a presentar la solicitud de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información.*

Las y los obligados a presentar la solicitud de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información son los delimitados en el apartado 3 del artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Artículo 3. *Plazo de presentación de la solicitud de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información.*

1. Solicitud de alta. Esta solicitud deberá presentarse cuando se inicie la actividad como «operador de plataforma».

2. Solicitud de modificación. Esta solicitud deberá presentarse en el plazo de un mes desde que se hayan producido los hechos que determinan su presentación.

3. Solicitud de baja. Esta solicitud deberá presentarse en el plazo de un mes desde que se cumplan las condiciones previstas en el apartado 2 del artículo 5.

Artículo 4. *Condiciones y procedimiento para la presentación de la solicitud de alta, modificación y baja en el registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información.*

Las solicitudes de alta, modificación y baja, previstas en los artículos 15 bis, 16 bis y 17 bis del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, se presentarán de forma obligatoria por vía electrónica a través de Internet desde la sección de escritos de la plataforma Zergabidea, con arreglo a lo previsto en Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, en los plazos establecidos en el artículo 3 anterior.

La plataforma Zergabidea se encuentra disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. Se podrá, así mismo, acceder a dicha plataforma desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Artículo 5. *Solicitud de modificación o cese de actividad como operador de plataforma.*

1. Cuando se modifique cualquiera de los datos recogidos en la solicitud de alta o en cualquier otra solicitud de modificación posterior, el «operador de plataforma obligado a comunicar información» a que se refiere el artículo 72 ter.3 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, deberá comunicar a la Administración tributaria, mediante la correspondiente solicitud, dicha modificación.

2. Asimismo, si el operador de plataforma dejara de realizar cualquier tipo de actividad como «operador de plataforma» o ya no cumpliera las condiciones establecidas en el artículo 72 ter.3 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, deberá presentar la correspondiente solicitud mediante la que comunique a la Administración tributaria tal circunstancia, a efectos de su baja en el Registro de otros operadores de plataforma obligados a comunicar información.

6. artikulua. «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izeneko 238 ereduak aurkeztera behartuak.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluko 2. apartatuaren bigarren paragrafoan eta artikuluko 3. apartatuan aipatzen direnak aurkeztu behar dute «Plataforma operadoreek informazioa komunikatzeko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izenaren 238 ereduak.

7. artikulua. «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izeneko 238 ereduak jasotzeko informazioa.

«Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izenaren 238 ereduak foru agindua honen eranskinean jasotzen den informazioa aitortu behar du, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoarekin bat, betiere «informazioa ematera behartuta dauden plataforma operadoreak» eta jardura egoki bat egin duten «informatu beharreko saltzaileak» dagokienez.

Hala ere, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren «plataforma operadore salbuetsiek» estatuko legeriari jarraituta frogatu badezakete beren plataformaren enpresa ereduak ez dagoela «informatu beharreko saltzaileak», aurkezten duten aitortenaren edukia eranskinean plataforma aitortzaileari buruz zehazten diren datuetara mugatuko da (Aurkezpenaren gorpuzteko datuen A atala).

Era berean, informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadoreak Espainian eta beste estatu kide edo «Jurisdikzio elkartu» batean betetzen badu Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter.3 artikuluan aipatzen diren konexio irizpideetako bat, eta aitortzea ez bada Espainian aurkezten, aitortenaren edukia datu hauetara mugatuko da: eranskinean plataforma aitortzaileari buruz zehazten diren datuak (Aurkezpenaren gorpuzteko datuen A atala), eta haren izena, TIN zenbakia (Tax identification number) eta aitortzen den jurisdikzioaren duen helbidea.

Orobat, informazioa ematera behartuta dauden plataforma operadoreak, Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter.5 artikuluan aipatuek, aurkezten duten aitortenaren edukia datu hauetara mugatuko da: eranskinean plataforma aitortzaileari buruz zehazten diren datuak (Aurkezpenaren gorpuzteko datuen A atala), eta saltzaileak plataforma aitortzailearen izenean aitortzea bere gain hartzen duen plataformari buruz eranskinean zehaztutakoak (Aurkezpenaren gorpuzteko datuen B.1 atala).

8. artikulua. «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu behar den aitorten informatiboa» izeneko 238 ereduak aurkezteko epea.

«Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izenaren 238 ereduak urtero aurkeztu behar du, «saltzaileak» «informatu beharreko saltzaileak» gisa identifikatu eta hurrengo urte naturaleko urtarilaren 1etik 31ra bitarteko epean.

Artículo 6. Obligados a presentar el modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

Los obligados a presentar el modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», son los delimitados en el artículo 72 ter, apartados 2, segundo párrafo, y 3 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Artículo 7. Objeto de la información del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

Deberá ser objeto de declaración en el modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», la información contenida en el anexo, de conformidad con lo previsto en el apartado 4 del artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en relación con los «operadores de plataforma obligados a comunicar información» y los «vendedores sujetos a comunicación de información» que hayan llevado a cabo una actividad pertinente.

No obstante, el contenido de la declaración presentada por los «operadores de plataforma excluidos» a los que se refiere el artículo 72 ter, apartado 2, segundo párrafo, del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que puedan demostrar, de conformidad con la legislación nacional, que el modelo empresarial de su plataforma no tiene vendedores sujetos a comunicación de información, se limitará a los datos de la plataforma declarante (apartado A de Datos del cuerpo de la presentación) especificados en el anexo.

Asimismo, si el operador de plataforma obligado a comunicar información cumple en España y en otro Estado miembro o «Jurisdicción social» alguno de los criterios de conexión enumerados en el artículo 72 ter.3 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, y el Estado miembro de declaración no es España, el contenido de la declaración se limitará a los datos de la plataforma declarante (apartado A de Datos del cuerpo de la presentación) especificados en el anexo y su nombre, TIN (Tax identification number) y dirección en esa jurisdicción donde declare.

Igualmente, el contenido de la declaración presentada por los operadores de plataforma obligados a comunicar información a que se refiere el artículo 72 ter.5 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, se limitará a los datos de la plataforma declarante (apartado A de Datos del cuerpo de la presentación) y de la plataforma que asume declarar los vendedores en nombre de la plataforma declarante (apartado B.1 de Datos del cuerpo de la presentación) especificados en el anexo.

Artículo 8. Plazo de presentación del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

La presentación del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», tendrá carácter anual y deberá ser objeto de presentación en el plazo comprendido entre el 1 y el 31 de enero del año natural siguiente a aquel en el que el «vendedor» haya sido identificado como «vendedor sujeto a comunicación de información».

9. artikulua. «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izeneko 238 eredua aurkezteko baldintzak eta prozedura.

1. Foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen diren zergapekoek ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren 2. eta 3. artikuluetan ezarrita dauden baldintzen eta prozeduraren arabera aurkeztu behar dute 238 eredua (320/2017 Foru Agindua, ekainaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duena). Horretarako, bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza elektronikoan eta bai haren webgunean eskuragarri jarriko dira, gainerako formulario, eredu normalizatu eta gainerako laguntza programa eta zerbitzuekin batera, 238 eredua elektronikoki bidaltzeko zerbitzua eta hari dagokion informazioa.

Alde horretatik, plataforma operadoreek informazioa emateko egin behar den aitorten informatiboa mezu informatiko bategan bidali beharko da, foru agindu honetako eranskinean agerituen edukiri jarraituta.

2. Akatsak edukiz gero, aitortpena ez da onartuko. Kasu horretan, erantzunaren mezu informatikoak aitortpena ez onartzeko arrazoiak azalduko ditu. Aitortpena errefusatzen den kasuetan, aurkezleak behar diren zuzenketak egin beharko ditu, baita aitortpena berriro aurkeztu ere. Aitortpena onartzen bada, erantzunaren mezu informatikoak 40 karaktereko ziurtapen kode seguru bat izango du, eta data eta ordua ere adieraziko ditu.

10. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua.

«Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izena duen 238 eredua aitortzeko mezu informatikoak eranskinean jasotzen diren erregistroko eremuek duten edukira egokituko dira, eta haien formatua eta diseinua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean (<https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>) une bakoitzean ageri direnak izango dira.

Xedapen gehigarri bakarra. 2023ko ekitaldiari buruzko informazioa.

Foru agindu hau 2023ko ekitaldiari dagokion 238 eredua aurkezteko aplikatuko da lehen aldiz. Eredua foru agindu hau indarrean jarri eta bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau indarrean jarriko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoaren arabera.

Donostia, 2024ko martxoaren 5a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (1678)

ERANSKINA

«Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izeneko 238 ereduaren edukia.

Foru agindu honetan xedatutakoa betez Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behar diren mezu informatikoei eduki hau izan beharko dute:

- Aurkezpenaren goiburuko datuak:
- Ekitaldia.
 - Aurkezpen mota.
 - Aurkezpenaren identifikazio kodea.
 - Aitortzailearen IFZ.

Artículo 9. Condiciones y procedimiento para la presentación del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

1. Los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 6 de la presente orden foral presentarán el modelo 238 con arreglo a las condiciones y al procedimiento establecidos en los artículos 2 y 3 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, para lo cual, en la sede electrónica y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas se informará del servicio de remisión electrónica del modelo 238, que estará disponible junto con el resto de los formularios o modelos normalizados, programas de ayuda o servicios, en la sede electrónica y página web citadas.

A tal efecto, deberán presentar un mensaje informático en que consiste la declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas, ajustado al contenido que figura en el anexo de esta orden foral.

2. Si la declaración contuviera errores no se aceptará. En este caso, el mensaje informático de respuesta contendrá la expresión del motivo por el que no ha sido aceptada. En este caso de rechazo, la persona o entidad obligada a presentar deberá realizar las correcciones necesarias y proceder a una nueva presentación. Cuando la declaración resulte aceptada, el mensaje informático de respuesta incorporará un código seguro de verificación de 40 caracteres, además de la fecha y hora.

Artículo 10. Formato y diseño de los mensajes informáticos.

Los mensajes informáticos comprensivos de la declaración del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas», se ajustarán a los campos de registro en que se concrete el contenido de los mismos que figuran en el anexo, y su formato y diseño será el que, en cada momento, conste en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <https://egoitza.gipuzkoa.eus>, y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>.

Disposición adicional única. Información relativa al ejercicio 2023.

La presente orden foral será de aplicación por primera vez para la presentación del modelo 238 correspondiente al ejercicio 2023, que se deberá presentar en el plazo de dos meses siguientes a la entrada en vigor de la presente orden foral.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 2/2005, 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 5 de marzo de 2024.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (1678)

ANEXO

Contenido del modelo 238, «Declaración informativa para la comunicación de información por parte de operadores de plataformas».

Los mensajes informáticos que, en cumplimiento de lo dispuesto en la presente orden foral, sean transmitidos a la Hacienda Foral de Gipuzkoa se ajustarán al siguiente contenido:

- Datos de la cabecera de la presentación:
- Ejercicio.
 - Tipo de presentación.
 - Código identificativo de la presentación.
 - NIF del declarante.

— Mezu mota. — Harremanetarako datuak. — Mezu motaren adierazlea: informazio berria, zuzenketak edo adierazi beharreko eragiketak gabe. — Datuen kalitatea. — Aitortutako datu mota. Aurkezpenaren gorputzeko datuak: A. Plataforma operadore aitortzailea: 1. Egoitzako herrialdea. 2. Identifikazio fiskaleko zenbakia. 3. Entitatearen identifikazio zenbakia. 4. BEZaren identifikazio zenbakia. 5. Sozietate izena edo izendapena. 6. Plataformaren izen komertziala. 7. Helbidea. 8. Aitorpenaren arrazoa. 9. Plataformako saltzaileen eragiketak beste plataforma operadore batek aitortzen dituenean. 10. Plataforma operadore aitortzaileen erregistroaren erreferentzia (DocRefId). B. Beste plataforma operadore batzuk, edo plataforma operadore bera, beste jurisdikzio batean aitortzen duen kasuan: B.1. Saltzaileak plataforma operadore aitortzaileen izenean aitortzen dituen plataforma operadorea, edo plataforma operadore bera, beste jurisdikzio batean aitortzen duenean: 1. Egoitzako herrialdea. 2. Identifikazio fiskaleko zenbakia. 3. Sozietate izena edo izendapena. 4. Helbidea. 5. Aitorpena bere gain hartzen duen plataforma operadorearen erregistroaren erreferentzia edo beste jurisdikzio batean aitortzen duen plataforma operadorearena (DocRefId). B.2. Plataforma operadore aitortzaileak beste plataforma operadore batzuetako saltzaileak aitortzen dituenean: 1. Egoitzako herrialdea. 2. Identifikazio fiskaleko zenbakia. 3. Sozietate izena edo izendapena. 4. Helbidea. 5. Bere gain hartutako plataforma operadorearen erregistroaren erreferentzia (DocRefId). C. Adierazi beharreko saltzaile bakoitzaren erregistroak: 1. Identifikazio datuak: 1.1. Saltzaileak, pertsona juridikoak: 1.1.1. Pertsona juridikoa den saltzailearen identifikazioa, modu estandarrean: 1.1.1.1. Egoitzako herrialdea. 1.1.1.2. Identifikazio fiskaleko zenbakia. 1.1.1.3. Entitatearen identifikazio zenbakia. 1.1.1.4. BEZaren identifikazio zenbakia. 1.1.1.5. Sozietate izena edo izendapena. 1.1.1.6. Helbidea. 1.1.1.7. Identifikazio finantzarioa: 1.1.1.7.1. Kontu zenbakia. 1.1.1.7.2. Kontu zenbakiaren mota.

— Tipo de mensaje.

— Datos de contacto.

— Indicador de tipo de mensaje: nueva información, correcciones o sin operaciones que reportar.

— Calidad de los datos.

— Tipo de dato declarado.

Datos del cuerpo de la presentación:

A. Operador de Plataforma Declarante:

1. País de residencia.

2. Número de identificación fiscal.

3. Número de identificación de la entidad.

4. Número de identificación de IVA.

5. Denominación o razón social.

6. Nombre comercial de la Plataforma.

7. Dirección.

8. Motivo de la declaración.

9. Si otro operador de plataforma asume la declaración de las operaciones de los vendedores de esta plataforma.

10. Referencia del registro Operador de Plataforma declarante (DocRefId).

B. Otros Operadores de Plataformas o caso de mismo Operador de Plataforma que declara en otra jurisdicción:

B.1. Operador de Plataforma que asume declarar los vendedores en nombre del operador de Plataforma declarante o mismo Operador Plataforma en la otra jurisdicción donde declara:

1. País de residencia.

2. Número de identificación fiscal.

3. Denominación o razón social.

4. Dirección.

5. Referencia del registro Operador de Plataforma que asume o del mismo Operador Plataforma en otra jurisdicción donde declara (DocRefId).

B.2. Operadores de Plataformas de las que el operador de Plataforma declarante asume la declaración de sus vendedores:

1. País de residencia.

2. Número de identificación fiscal.

3. Denominación o razón social.

4. Dirección.

5. Referencia del registro Operador de Plataforma asumido (DocRefId).

C. Registros de cada Vendedor reportable:

1. Datos identificativos:

1.1. Vendedores personas jurídicas:

1.1.1. Identificación del vendedor persona jurídica modo Estándar:

1.1.1.1. País de residencia.

1.1.1.2. Número de identificación fiscal.

1.1.1.3. Número de identificación de la entidad.

1.1.1.4. Número de identificación de IVA.

1.1.1.5. Denominación o razón social.

1.1.1.6. Dirección.

1.1.1.7. Identificación financiera:

1.1.1.7.1. Número de cuenta.

1.1.1.7.2. Tipo de número de cuenta.

1.1.1.7.3. Kontuaren titularra. 1.1.1.7.4. Kontuaren titularra identifikatzeko beste informazio bat. 1.1.1.8. Establezimendu iraunkorrak: 1.1.1.8.1. Establezimendu iraunkorraren estatu kidea. 1.1.2. Pertsona juridikoa den saltzailearen identifikazioa, GVS moduan (GVS erabiltzeko baimena jaso bada soilik): 1.1.2.1. GVSren sozietate izena edo izendapena. 1.1.2.2. GVSren jurisdikzioa. 1.1.2.3. GVSren erreferentzia. 1.1.2.4. GVSren beste TIN batzuk. 1.1.2.5. Identifikazio finantzarioa: 1.1.2.5.1. Kontu zenbakia. 1.1.2.5.2. Kontu zenbakiaren mota. 1.1.2.5.3. Kontuaren titularra. 1.1.2.5.4. GVS (Government Verification System) kontuaren titularra identifikatzeko beste informazio bat: beste identifikazio modu bat da, TIN (IFZ) ez den beste kode berezi bat erabiltzen duena, eta Gobernu baten Informazio Sistemak esleitzen eta baimentzen duena. 1.2. Saltzaileak, pertsona fisikoak: 1.2.1. Pertsona fisikoa den saltzailearen identifikazioa, modu estandarrean: 1.2.1.1. Egoitzako herrialdea. 1.2.1.2. Identifikazio fiskaleko zenbakia. 1.2.1.3. BEZaren identifikazio zenbakia. 1.2.1.4. Izen-deiturak. 1.2.1.5. Helbidea. 1.2.1.6. Jaiotzari buruzko informazioa: 1.2.1.6.1. Jaioteguna. 1.2.1.6.2. Jaioterria. 1.2.1.7. Identifikazio finantzarioa: 1.2.1.7.1. Kontu zenbakia. 1.2.1.7.2. Kontu zenbakiaren mota. 1.2.1.7.3. Kontuaren titularra. 1.2.1.7.4. Kontuaren titularra identifikatzeko beste informazio bat. 1.2.2. Pertsona fisikoa den saltzailearen identifikazioa, GVS moduan (GVS erabiltzeko baimena jaso bada soilik): 1.2.2.1. GVSren izena. 1.2.2.2. GVSren jurisdikzioa. 1.2.2.3. GVSren erreferentzia. 1.2.2.4. GVSren beste TIN batzuk. 1.2.2.5. Identifikazio finantzarioa: 1.2.2.5.1. Kontu zenbakia. 1.2.2.5.2. Kontu zenbakiaren mota. 1.2.2.5.3. Kontuaren titularra. 1.2.2.5.4. Kontuaren titularra identifikatzeko beste informazio bat. 2. Jarduera egokiei buruzko informazioa: 2.1. Ondasun higiezinaren errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena: 2.1.1. Helbidea. 2.1.2. Katastroko erreferentzia zenbakia.	1.1.1.7.3. Titular de la cuenta. 1.1.1.7.4. Otra información identificativa del Titular de la cuenta. 1.1.1.8. Establecimientos permanentes: 1.1.1.8.1. Estado miembro del Establecimiento permanente. 1.1.2. Identificación del vendedor persona jurídica modo GVS (solo si se ha recibido aprobación de utilizar GVS): 1.1.2.1. Denominación o razón social GVS. 1.1.2.2. Jurisdicción GVS. 1.1.2.3. Referencia GVS. 1.1.2.4. Otros TIN GVS. 1.1.2.5. Identificación financiera: 1.1.2.5.1. Número de cuenta. 1.1.2.5.2. Tipo de número de cuenta. 1.1.2.5.3. Titular de la cuenta. 1.1.2.5.4. Otra información identificativa del titular de la cuenta GVS (Government Verification System) se refiere a una forma de identificación, por un código especial diferente al TIN (NIF) que lo asigna y autoriza el Sistema de Información de un Gobierno. 1.2. Vendedores personas físicas: 1.2.1. Identificación del vendedor persona física modo Estándar: 1.2.1.1. País de residencia. 1.2.1.2. Número de identificación fiscal. 1.2.1.3. Número de identificación de IVA. 1.2.1.4. Nombre y apellidos. 1.2.1.5. Dirección. 1.2.1.6. Información sobre el nacimiento: 1.2.1.6.1. Fecha de nacimiento. 1.2.1.6.2. Lugar de nacimiento. 1.2.1.7. Identificación financiera: 1.2.1.7.1. Número de cuenta. 1.2.1.7.2. Tipo de número de cuenta. 1.2.1.7.3. Titular de la cuenta. 1.2.1.7.4. Otra información identificativa del titular de la cuenta. 1.2.2. Identificación del vendedor persona física modo GVS (solo si se ha recibido aprobación de utilizar GVS): 1.2.2.1. Nombre GVS. 1.2.2.2. Jurisdicción GVS. 1.2.2.3. Referencia GVS. 1.2.2.4. Otros TIN GVS. 1.2.2.5. Identificación financiera: 1.2.2.5.1. Número de cuenta. 1.2.2.5.2. Tipo de número de cuenta. 1.2.2.5.3. Titular de la cuenta. 1.2.2.5.4. Otra información identificativa del titular de la cuenta. 2. Información sobre actividades pertinentes: 2.1. Arrendamiento o cesión temporal de uso de bienes inmuebles: 2.1.1. Dirección. 2.1.2. Número de referencia catastral.
---	--

2.1.3. Jabetza mota.	2.1.3. Tipo de propiedad.
2.1.4. Deskribapena jabetza mota «Beste bat» denean.	2.1.4. Descripción cuando el tipo de propiedad es «Otro».
2.1.5. Zenbait egun alokatuta.	2.1.5. Número de días de arrendamiento.
2.1.6. Kontraprestazioa hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.1.6. Contraprestación por trimestre, con indicación de la moneda.
2.1.7. Jarduera kopurua hiruhileko bakoitzeko.	2.1.7. Número de actividades por trimestre.
2.1.8. Komisioak, fidantzak, tarifak eta hiruhileko bakoitzean atxikitako edo kobratutako antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.	2.1.8. Comisiones, fianzas, tarifas y otras cantidades análogas retenidas o cobradas por trimestre, con indicación de la moneda.
2.1.9. Zergak hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.1.9. Impuestos por trimestres, con indicación de la moneda.
2.2. Zerbitzu pertsonalak:	2.2. Servicios personales:
2.2.1. Kontraprestazioa hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.2.1. Contraprestación por trimestre, con indicación de la moneda.
2.2.2. Jarduera kopurua hiruhileko bakoitzeko.	2.2.2. Número de actividades por trimestre.
2.2.3. Komisioak, fidantzak, tarifak eta hiruhileko bakoitzean atxikitako edo kobratutako antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.	2.2.3. Comisiones, fianzas, tarifas y otras cantidades análogas retenidas o cobradas por trimestre, con indicación de la moneda.
2.2.4. Zergak hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.2.4. Impuestos por trimestre, con indicación de la moneda.
2.3. Ondasunen salmenta:	2.3. Venta de bienes:
2.3.1. Kontraprestazioa hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.3.1. Contraprestación por trimestre, con indicación de la moneda.
2.3.2. Jarduera kopurua hiruhileko bakoitzeko.	2.3.2. Número de actividades por trimestre.
2.3.3. Komisioak, fidantzak, tarifak eta hiruhileko bakoitzean atxikitako edo kobratutako antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.	2.3.3. Comisiones, fianzas, tarifas y otras cantidades análogas retenidas o cobradas por trimestre, con indicación de la moneda.
2.3.4. Zergak hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.3.4. Impuestos por trimestre, con indicación de la moneda.
2.4. Garraiobideen errentamendua:	2.4. Arrendamiento de medios de transporte:
2.4.1. Kontraprestazioa hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.4.1. Contraprestación por trimestre, con indicación de la moneda.
2.4.2. Jarduera kopurua hiruhileko bakoitzeko.	2.4.2. Número de actividades por trimestre.
2.4.3. Komisioak, fidantzak, tarifak eta hiruhileko bakoitzean atxikitako edo kobratutako antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.	2.4.3. Comisiones, fianzas, tarifas y otras cantidades análogas retenidas o cobradas por trimestre, con indicación de la moneda.
2.4.4. Zergak hiruhileko bakoitzeko, moneta adierazita.	2.4.4. Impuestos por trimestre, con indicación de la moneda.
3. Saltzailearen erregistroaren erreferentzia (DocRefId).	3. Referencia del registro del Vendedor (DocRefId).